

Erref.- AIP/Goi mailako teknikaria

EBAZPEN-PROPOSAMENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITIRA ALDI BATERAKO LAN-POLTSEN 2019KO ZONIFIKAZIO-PROZESUAREN BEHIN BETIKO ZERRENDAK.

Gerente andrea:

GUFEn Gobernu Batzordeak, 2018ko apirilaren 13an egindako bilera arruntean, besteak beste, aldi baterako laneko poltsak kudeatzeko irizpideak onetsi zituen, zonifikazio berriaren eranskinarekin batera. Testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO, 76. zk., 2018ko apirilaren 20koa, eta okerren zuzenketa BAOren 85. zenbakian, 2018ko maiatzaren 4an) eta GUFEn iragarki-oholean eta web-orrian argitaratu zen.

Erabaki horren bidez, ahalmena eman zitzaion GUFeko gerenteari testu horretan ezarritakoa gauzatzeko, eta, ondorioz, orain, besteak beste, aldi baterako laneko poltsak kategorien arabera aukeratu beharra xedatu zuen, dokumentuan ezarritako epean eta moduan.

Gerentziak aurtengo abenduaren 10ean emaniko ebazpen baten bidez, xedatu zen argitara ematea kategoria bakoitzeko behin-behineko zerrendak, eta, aldi berean, errakuntza materialak zuzentzeko epea irekitzea. Behin epe hori amaituta, behin betiko zerrendak onartzen dira, eta kasuan kasuko lan-poltsak eratzen. Horiek guztiak 2020ko urtarrilaren 15ean sartuko dira indarrean.

Gai honen eskumena GUFEn gerente andreari dagokio gaikuntzan bertan eta maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera. Izan ere, foru-arau horrek institutu hori eraentzen duten estatutuak aldatu zituen.

Beraz, hau sinatzen dutenak honako ebazpen-proposamen hau aurkezten dizute, aztertu eta onar dezazun:


EBAZPENA

Lehenengoa.- Onartzea kategoria bakoitzean zonifikazio-prozesuaren ondorioz eratutako behin betiko zerrendak, ebazpen honen eranskinean jasoak. Horiek guztiak 2020ko urtarrilaren 15ean sartuko dira indarrean.

Bigarrena.- Xedatzea zerrenda horiek (eranskinean daudenak) GUFEn iragarki-oholean eta web-orrialdean argitara daitezela.

Bilbon, 2020ko urtarrilaren 8an.

AUKERAKETA ETA HORNIKUNTZA ARLOKO
BURUA



Sin.: M^a José Larrinaga Artetxe

PERTSONAK ZUZENTZEKO DEPARTAMENTUKO
BURUA



Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GUFeko gerentearen 2020ko urtarrilaren 8ko
EBAZPENA. Aurreko proposamena ikusi
ondoren, osorik onartzen dut. Aurrekoa bete
bedi.



Sin.: Nerea Urien Azpitarte